

68/2024 FORU AGINDUA, Eskubide Sozialesko, Ekonomia Sozialesko eta Enplegu Kontseilariak martxoaren 7an emana, zeinaren bidez onesten baita Eskubide Sozialesko, Ekonomia Sozialesko eta Enplegu Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Plana.

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak xedea du Nafarroako hizkuntza errealitateari erantzutea, berezko bi hizkuntza baititu, euskara eta gaztelania, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean onartzen den gisan. Foru dekretu horren bidez euskararen erabilera arautu zen Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

Foru Dekretu horren 6. artikulua, hizkuntza plangintza jorratzen baitu, xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzak bere planak prestatuko dituela 3. artikuluan finkatutako helburuak erdiesteko, eta plan horretako gutxienezko edukia zehazten ditu.

5. artikulua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua koordinazio organo izendatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean; haiei aholkua eman behar die eta haiekin elkarlanean aritu, Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko. Ildo horretan, Euskarabidea eta Eskubide Sozialesko, Ekonomia Sozialesko eta Enplegu Departamentua lankidetzan aritu dira departamentu horretako hizkuntza plana prestatzeko.

Planak aipamena egiten dio departamentuaren egiturari, lege esparrua deskribatzen du, eta datu demografiko eta soziolinguistikoak eskaintzen. Abiaturuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du

(euskararen halako ezagutza bat ezarrita daukaten lanpostuen kopurua), langileen euskararen ezagutzari buruz eskura dauden datuak agertzen eta departamentuaren komunikazio eta baliabideen egoera aztertzen.

Gainera, zehazten da zein helburutara jo behar den ezarritako epean, hala nola langileen euskarazko prestakuntza, herritarrak euskaraz artatzeko neurriak, ele biko informazio idatzia, hizkuntza paisaia (errotulazioa eta elementu fisikoak), lanpostu jakin batzuen hizkuntza nahitaezotasuna eta zerbitzu lizitatuetan arreta elebiduna emateko irizpideak. Planaren garapenaren antolaketa egitura finkatzen da, honako hauek osatua, koordinaziorako eta garapenerako entitate gisa: departamentuko lantalde bat, departamentuen arteko batzorde bat eta Euskarabideko Gobernu Kontseilua. Azkenik, ebaluazioa eta jarraipena egiteko bideak ezartzen dira.

Proposamenarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 251/2023 Foru Dekretuaren bidez esleitu dizkidaten eskudantziak erabiliz,

#### AGINTZEN DUT:

1. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren 2023-2027 urteetarako (biak barne) Hizkuntza Plana onestea, eta foru agindu honi eranskin gisa gehitzea, hori agintzen baitu azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak. Foru dekretu horren bidez euskararen erabilera arautu zen Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

2. Plana Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzea, orok jakin dezan.

3. Foru Agindu hau eta haren eranskina helaraztea Euskarabidea-Nafarroako Euskara Institutuari eta Eskubide Sozietako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, 2024ko martxoaren 7an.

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA  
ENPLEGUKO KONTSEILARI

M<sup>a</sup> Carmen Maeztu Villafranca